



«Auditz-Akularrek on egingo dio Altzari»

Alberto Rodríguezek 11 urte daramatza Donostiako Udalean PSE-EEko zinegotzi. Hiri Zerbitzuetako zinegotzia dugu Rodríguez, eta bere ardura dira, besteak beste, hondartzak, komunak, hilerriak, zabor bilketa eta ur saneamentua. Hitz jario handiko altzatar hau izan dugu solaskide.

Sara Soria

Eguraldi txarra dela eta, aurten ia ez da jenderik izaten ari hondartzetan. Hondartza zerbitzuetako buru izanik, nola ikusten duzu egoera?

Udalari egoera honek ez dio onik egingen, hondartzetako langile guztiei berdinduta ordaindu behar baitzaie: sorosleak, kabinetako langileak... Diru galera izan dugu, eta erakunde publiko bezala ezin zara poztu. Dena dela, parke eta lorategien ikuspuntutik begiratuta, eguraldia ez da hain txarra izan; ez behintzat zuhaitz, landare eta lorategientzat. Izan ere, aurreko urteetan data hauetarako lehor-lehor zeuden guztiak. Aurten ez da hori gertatu.

Hondartzetako ura zikina dagoela

diote batzuek. Urazpiko emisarioaren emaitzak neurtu al dira?

**Donostiarrok
beste leku
batzuetan
baino gutxiago
zikintzen
dugu**

Donostiako hondartzetako ura kalitate onekoa da. Beti guk nahi bezain garbi ez egon arren, bainurako aproposa da. Osasun Sailak astean bitan uraren azterketa sakona egiten du. Emisarioari dagokionez, berriz, zera ikusi dugu: lehen baino zikinkeria gutxiago dagoela dela ur gainean. Zikinkeria itsasoan sakonago isurtzen da, eta kostaldetik urrutirago. Ondorioz, kutsaduraren eragina ez da horrenbeste nabaritzen. Hori argi ikusi dugu Zurriola hondartzan. Dena dela, uraren konposizio biologikoa ia lehengo bera da.

Zein fasetan dago Loiolako araztegia?

Lehen zatian dago, eta aurreikusitakoaren arabera, 2004 urteko udarako martxan izango da. Araztegia Donostialdeko proiektu garrantzitsuenetakoa da, eta gure hondartzetako uren kalitateari on egingo dio.

Donostiako kaleen garbitasuna dela eta, Udalak sari bat jaso du duela gutxi. Zein da sekretua?

Donostiarrok beste lekuetan baino gutxiago zikintzen dugu. Gainera, udalak diru asko bideratzen du zaborbiltze eta kale garbitze zerbitzuetarako, kalitatezko hiri nahi dugu eta. Bestalde, hiritar guztiok gozatzen dugu garbitasunaz. Gure helburua ez da kaleak garbitzea turistek hiri garbia ikus dezaten, urte osoan donostiarrek kaleak txukun izan ditzaten baizik.

Ilido horretatik, auzo guztiak berdinak dira. Kalitatea eta garbitasunari dagokio-

**Ez dakit
oposizioko
taldeek oso
jarrera
koherentea
duten**

nez, ez da auzo eta zonaldeen arteko ezberdintasunik egiten. Salbuespena parte Zaharra da; izan ere, bertako ezaugarriak direla eta, garbitze zerbitzu gehiago behar izaten ditu.

Altzako Bizilagun Elkarteko kide izatetik zinegotzi izatera igaro zinen. Nola-koa izan zen prozesua?

Beti ibili naiz gizarte mugimenduetan, guraso elkarteetan eta abar. Zinegotzi izan baino lehen, alderdi sozialistan aritu nintzen, beti ezkerrekoa izan naizelako. Ondoren, Odon Elorzak alderdi sozialistaren udal zerrendan sartzea proposatu zidan. Zinegotzi izendatu nindutenean nire bitzita erabat aldatu zen. Bestalde, beti pentsatu izan dut ahal dudana baino gutxiago egin ohi dudala, hots, nire lana ez dela nahikoa. Nire akatsik handiena prestatuntza sakonik ez izatea da, hau da, ni ez naiz unibertsitatean joan. Hala ere, bitzitzaren unibertsitatean ikasi dut, eta zinegotzi lanetan ari naizenetik, nire buruarekin koherente izaten saiatu naiz.

Altzako bizilaguna zaitugu eta bertako dorre batean bizi zara. Bertako populazio masifikazioa ikusita, zer iritzi duzu Auditiz-Akular proiektu ika-mikatsuari buruz?

Proiektu hori ezinbestekoa dela uste dut. Donostiako arazorik handienetakoa etxebizitzarena da, eta hirian dagoen lursail bakarra Auditiz-Akularrekoa da. Jakina da Altzan bizi kalitate txarra dagoela, baina Auditiz-Akularrek on egingo dio auzoari. Dorreak hor daude, eta bere garaian gaizki lan egin zela erakusten dute, baina hor ez dago ezer egiterik.

Auditiz-Akular ez da beste Altza bat izango. Bertan gehienera bost solairuko

etxeak egingo dira, eta biztanle-dentsitatea askoz baxuagoa izango da. Horrez gain, errepideak, topo geltoki berria eta berdegune gehiago egingo dira.

Altzako beste zenbait tokitan salmenta libreko etxebizitzak egitea aurrerikusi da. Auditiz-Akularreko proiektua kontuan hartuta, 5.000 etxebizitzak egin nahi dira Altzan. Hainbeste etxe behar al dira?

Salmenta libreko etxebizitzetara dagokienez, berdeguneak eta espazio publikoak berreskuratu nahi ditugu, baina nonbaitek atera behar da horretarako dirua. Babes ofizialeko etxebizitzetan kasuan, berriaz, Altzako gazteek ez dute dirurik etxebizitzak erosteko eta, ondorioz, babes ofizialekoak behar dira alokairuan jartzeko. Auditiz-Akular martxan jarri behar da. Proiektu hori ez da gelditu behar.

Azken udalbatzetan oposizioak PSE-EEren zenbait proiektu atzera bota ditu. Gutxiengoan gobernatzea ezinezkoa bihurtzen ari al da?

Ez. Gutxiengoan gobernatzea oso zaila da, baina zer egin nahi den argi dagoenean, aurrera egiteko indarrak ateratzen di-

tuzu nonbaitek. Alde horretatik, nik ez dakit oposizioko taldeek jarrera koherentea duten; izan ere, legealdi batetik bestera alkatea eta gobernu taldea aldatu egin daitezke, ez ordea, hiria. Guk gehiengoan gobernatzen genuenetik ez dugu ezer aldatu, ildo beretik jarraitzen dugu.

Bere iritzia kontuan hartzen ez delakoan, oposizioak kritika gogorak egin ditu PSE-EEren eta batik bat Odon Elorzaren aurka. Zer diozu?

Duela asko ezagutzen dut Elorza, bai pertsonalki eta baita politikoki gisa ere, eta ez dut uste hori egia denik. Gainera, informazio batzarrak egin ohi ditugu. Gertatzen dena da gutxiengoan gobernatzea zaila dela.

Zer irudituko litzazuke Batasuna legez kanpo uztea?

Demokrazian sinesten dut. Ezin dut batoratu Batasuna legez kanpo uzteak zer ekarriko duen, baina beste kargu publikoek askatasuna berreskuratuko dute, behintzat. Demokrazian garrantzitsuena hitza da. Kargu publiko batean aritzeagatik aske ez izatea diktadura hutsa da.

